

HITZA



Aurtengo sansebastianen aurkezpena, joan den astelehenean Azpeitiko udaletxean. AITZIBER ARZALLUS

Danbor hotsen ekaitzak hartuko ditu gaurtik Azpeitiko kaleak

Gaur, San Sebastian bezpera, 30 taldetan banatuta 1.500 herritarrek irtengo dute helduen danborradan

• Haurren danborradan, berriz, hamar taldek eta 500 ume inguruk parte hartuko dute // 4-5

Bederatzi sagardogilek parte hartuko dute Zarauzko Sagardo Egunean

Igande eguerdian izango da, Zurekin elkarteak antolatuta. Aurtengoan, Aritz tabernako Jose Aristi 'Xiplo' eta Mari Paz Rodrigo omenduko dituzte // 2

Azkoitiko Floreaga auzoko irisgarritasuneko bigarren faseko lanak eman dituzte

Beste igogailu bat eta oinezkoentzat bi pasabide egingo dituzte, eta gunea urbanizatu // 6

Ekainera bitarteko egitaraua aurkeztu du Azpeitiko Emakumeen Txokoak

Ikastaroetarako eta ekintzetarako izen ematea astelehenean irekiko dute // 7



Zurekin elkarteak kideak eta Urdaira eta Izeta sagardotegietako arduradunak Sagardo Egunaren aurkezpenean, Merkatu Plazan. J.G.T.

Sagardo Eguna berreskuratuko du Zurekin elkarteak igande eguerdian

Bederatzi sagardotegitako uza izango da dastagai, Lege Zaharren enparantzaz •Aritza tabernako Jose Aristi 'Xiplo' eta Mari Paz Rodrigo zirenak omenduko dituzte aurrez

- JABI GONZALEZ TOSTON
Azken urteetako etenaren ostean, Zurekin Zarauzko Ostalarien Elkarteak Sagardo Eguna antolatu du igande honetarako. Duela astebate ireki zuten sagardo denboraldia eta Zarautzen ere egingo diote ongi etorria ohiko dastaketarekin.

Sagardotegi gehienek dagoeneko zabaldu dute txotxa. Horien artean da, esaterako, igandean Zarautzen izango den Usurbilgo Urdaira, eta bertako nagusi Patxi Azkonobietaren hitzetan inoizko irekierarik onena izan dute: «Joan den asteburuan hasi ginen gu eta orain arte izan

dugun lehenengo egun onena izan zen. Jendeak gogo handia du, badirudi mundua amaituko dela iruditzen zaiela eta presaz dabilta». Izeta sagardotegiak ere hartuko du parte Sagardo Egunean, atek zabaldu eta bi egunera, hain justu ere. Izan ere, bihar,

San Sebastian egunez abiatuko dute denboraldia. Zentzu horretan, Gotzon Iruretagoienak esan du hasiera ona aurreikusten dutela haiek ere: «Ostiralean hartuko diogu neurria guk, baina egia da jende askok deitu duela erreserba egiteko dagoeneko. Itxura ona hartzen diogu».

Edonola ere, biek ala biek, Urdairak zein Izetak, gustura hartzen dute Zarauzko hitzordua. «Guretzat garrantzitsuak dira horrelako ekitaldiak produktua erakusteko aukera ematen digutelako. Gainera, nabari da jendeak festarako gogo duela, eta primeran aterako dela uste dugu», aitortu du Azkonobietak. Bide beretik, Iruretagoienak esan du eguraldia lagun izanez gero, jende ugari bertaratuko dela: «Urte batzuk badira ekitaldia antolatzeko ohitura hasi zenetik, eta data gerturatu ahala, herritarrei ere pizten zaie festa honetarako gogoia. Azken urteetan pandemia dela eta ezin izan da egin».

Izeta eta Urdairarekin batera, beste zazpi sagardogilek eramango dute beren uza Lege Zaharren enparantzara, eta festa 12:00etatik 14:00etara ospatuko dute. Gainera, Euskal Parrilak egindako txuleta pintxoak ere dastatzeko aukera izango da. Hamar euro balioko du txotxak eta jatekoak, eta edalontzia itzultzen dutenei bi euro emango zaizkie bueltan; izan ere, berreserbitua ere sustatu nahi dute.

Omenaldia ere bai

Jan-edanaz gain, beste hainbat ekitaldi ere lotu ditu Zurekinek: hala nola, bertsoak Motxian bertso eskolaren eskutik eta txistulariak Goizeko Ihintza elkartearekin. Hori gutxi balitz, familien txokoa ere prestatu dute, txikien gozamenerako.

Halaber, sagardoaren festari hasiera eman aurretik, ohiko omenaldia egiteko tartea ere hartuko dute. Aritza tabernako jabeak izan ziren Jose Aristi 'Xiplo' eta Mari Paz Rodrigo senar-emazteei egingo diete aurten aitortza. Dagoeneko biak zendu direnez, oinordekoek jasoko dute oroigarria.


'Kantikoa Gaztelan' zabaldu dute Photomuseumen

- ARITZ MUTIOZABAL
Zarauzko Photomuseume aldian baterako erakusketa berria ireki zuten herenegun. *Kantikoa Gaztelan* du izenburua, eta Mikel Alonso argazkilaria bilbotarraren eta Amalia Iglesias idazle gaztelarraren elkarlanaren emaitza da.

Proposamen honetan argazkigintza eta literatura eskutik helduta doaz, Gaztelako paisaietara hurbiltzeko asmoz. Abandonatutako meategiak, paisaia indus-

trialak, iparraldeko natura oparoa, baita metafora gastronomikoak edota gizarte garaikidearen arazoekin inplikaturata eta konprometituta dauden beste elementu batzuk ere. Iragarritako irudi eta atmosfera horietatik sortzen da erakusketaren mui-
na.

«Proiektu fotografiko-poetiko honek zabarkeriaren paisaia horiek [Espainia despopulatua] erretratatu nahi ditu, denboran zehar, garaiko poeten lanetan



Erakusketan ikusgai dagoen argazkietako bat. MIKEL ALONSO

azaltzen zirenak eta gaur egunean ere erabateko indarra dutenak», dio Iglesiasek erakusketaren eskuorrian. Hori hala, Jorge Manrique, Antonio Machado, San Juan de Cruz eta Antonio Gamoneda bezalako olerkiak ditu aipagai.

Kantikoa Gaztelan erakusketa otsailaren 26a bitartean izango da ikusgai, ondorengo orduetartean: asteartetik igandera, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.



Urtarrilaren hasieratik merkealdietako kartelak ikus daitezke dendetako erakusleihoetan. AITZIBER ARZALLUS

Gabonetako kanpainak eta merkealdi sasoiak «egoera zaila» bizitzen ari den merkataritza txikiari bultzada eman dio; hala, herritarrak herrian bertan erostera animatu dituzte dendariak.

Herrian, kalitatea prezio onean

-AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA
-ANDREA ZIPITRIA

Gabonen bueltan, normalean, gehitu egiten da kontsumoa eskualdeko herrietako denda txikietan, eta urtarrilaren hasieratik aurrera abian den merkealdi kanpainak luzatu egingo du joera hori. Ederki ezagutzen dute sektorea Kaioa arropa dendako Ane Agirrebeña oriotarrak eta Tilin-Talan haur dendako Sonia Gomez azpeitiarrak, Hila-bete hauek herriko merkataritzan duten eraginaz aritu dira, besteak beste.

Agirrebeñaren iritziz, Gabonetako kanpaina eta ondoren datorren merkealdi garaia «garrantzitsuak» dira merkataritxikiel bultzada emateko, baina azken horiek «indarra galdu» dutela uste du. «Jendeak badu kalera atera eta dendetako erakusleihoak begiratzeko ohitura, eta Gabonetako kanpainak eta beharpenek lagundu egiten dute jendea erakartzeko. Hala ere, nik uste dut, gaur egun ez dela lehen bezala, eta jendea ez dela merkealdien zain egoten behar duena erosteko. Orain arte, esaterako, berokiak ez ditugu saldu, beroa egiten zuelako, eta negua sartu

denean, hasi gara horiek saltzen.

Iritzi berekoa da Sonia Gomez ere. Aurtengo urtarrila, Erregeen kanpainarekin eta beherapenen sasoiarekin, «iazkoa baino hobe» izaten ari dela azaldu du, baina uste du ez dela lehen bezalakoa. Egoera horren aurrean, herriko dendetan «benetako beherapenak» daudela azaldu du azpeitiarrak, «inongo iruzurrik gabekoak» eta neguko denboraldirako duten «guztia» jartzen dutela dendariak eskaintzan; «ez dugu egiten merkatal gune handietako dendek egiten dutena». Gainera, gogoratu du herriko merkatariek «marka onak prezio onetan» eskaintzen dituztela, eta beherapenak aprobetxatzera animatu ditu herritarrak. «Herriko dendetatik buelta bat eman eta eskaintza begiratzera gonbidatu nahi ditut. Denbora gelditzen da, eta ziur nago bila dabilzan hori denda txikietan aurkituko dutela».

Herriak bizirik

Merkataritza txikia «garai gogorra» bizitzen ari dela bat datoz bi dendariak, eta saltoki handiak eta Internet bidezko salmentak egiten dien minari gizartearen eragina duten beste hainbat faktore gehitu behar zaizkiola adierazi

du Agirrebeñak: «Nazioarte mailako gertakariak edota ekonomia-eraren joerak, esaterako, bete-bete baldintzatzen gaituzte. Albistegietan ematen den informazioak ere eragiten digu, ziur-gabetasunaren aurrean jendea kezkatu egiten delako eta gutxia-

Herrian «benetako beherapenak» eskaintzen direla azaldu du Gomezek

Merkataritza txikiaren aldeko kontzientzia hartu behar dela uste dute

go erosten duelako. Gainera, azken boladan batetik atera eta bestean sartzen gara: koronabirusaren izurritea amaitu zela ziurduenean, Ukrainako gerra eta energiaren krisia etorri zaizkigu. Ez dakigu zer izango den hurrengoan».

Horren aurrean, «kontzientziazio handiagoa» behar dela uste du oriotarrak, herriko denda txikiak ixten badira, «herriaren argia ere galdu» egingo delako. «Gure herri eredu mugimendu handikoa da; kaleko giroa asko gustatzen zaigu. Denda txikiak eta ostalaritza guneak

ditugu, eta jendeak kalean ibiltzeko, erakusleihoak begiratzeko eta tabernetan zerbait hartzeko ohitura du». Bertan kontsumitzen ez bada, ordea, establezimendu horiek «pertsiana itxi» beharko dutela azaldu du oriotarrak: «Itzali egingo dira erakusleihoetako argiak, eta horrekin batera herriak». Izan ere, lotarako herri bihurtzeko arriskua gero eta handiagoa dela pentsatzen du oriotarrak. «Ez dugu urrutira joan behar horren adibide argia ikusteko, kilometro gutxira baitugu Hendaia. Herri handia bada ere, oso denda gutxi ditu, eta jende gutxi ibiltzen da kalean».

Izurriteak merkataritza txikian «kalte handia» eragin zuela ere gogoratu du Agirrebeñak. «Denda, taberna eta jatetxe asko itxi ziren COVID-19aren aurka hartutako murrizketen eraginez, horrek ekarri zigan galera jasateko, oso indartsu egon behar zelako». Behin izurritea pasatuta, herritarrak «bizitzeko eta gastatzeko gogoarekin» antzematen ditu, baina azken hilabeteetako gertakariak ez dutela lagundu adierazi du. Beraz, «kontzientzia hartzeraz eta gertuko dendetan erostera» animatu ditu Agirrebeñak herritarrak, «herriei bizirik eusteko».

Smartphonea eta tableta erabiltzen irakatsiko dute Aian

-A. LARRAÑAGA SOLABERRIETA Aia

Teknologia berrien erabilera herritarren artean zabaltze aldera, Aiako KZguneak hiru ikastaro antolatu ditu. Smartphonea eta tableta erabiltzen irakastea dute helburu, eta ikastaro guztiak euskaraz izango dira.

Batetik, *Smartphoneak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi* ikastaroa otsailaren 2tik 10era bitartean izango da, 18:00etatik 20:00etara. Hamalau orduko iraupena izango du. Bestetik, *Google Aplikazioak zure Smartphonean* ikastaroa, otsailaren 13tik 23ra eskainiko dute, 18:00etatik 20:00etara, eta hamazortzi ordukoa izango da. Hirugarren ikastaroak *Argazkiei ukituak eman zure Smartphonearekin* izango du izenburu, eta otsailaren 24tik 27ra eskainiko dute, 18:00etatik 20:00etara; azken hori lau ordukoa izango da. Hala, ikastaroren batean izena eman nahi duten aiarrek *tutor.aia@kzgunea.net* posta elektronikora idatz dezakete. Ikastaro guztiak doan dira.

4.000 euro bildu ditu Ikastolak ekintza solidarioen bidez

ORIO // Orioko Herri Ikastolak elkartasun ekintzak egin ditu, eta jakinarazi du, guztira, 4.000 euro inguru bildu dituela. Alde batetik, 3x3 Saskibaloitxapelketa Solidarioa egin zuten, eta 446 euro eskuratu zituzten; guztia elikagaien bankura bideratu dute. Bestalde, tonbolarekin 3.619 euro bildu zituzten, eta erdia Ruandara bidali da.

Haurren elikadurari buruzko hitzaldia antolatu dute Orion

ORIO // Maria Maestra Haurreskolako guraso elkarteak antolatuta, haurren elikadurari buruzko hitzaldia eskainiko du Libe Garmendia nutrizionistak, urtarrilaren 25ean. 18:00etan hasiko da hitzaldia, eta interesa duen oro joateko deia egin da.

Sansebastianak behar bezala ospatzeko prest daude Azpeitian

Helduen danborradan 30 taldek eta 1.500 bat lagunek parte hartuko dute; haurren, hamar taldek eta 500 bat umek • Gaur erabakiko dute umeen danborrada noiz egin

-AITZIBER ARZALLUS

Hemen dira sansebastianak. Bi urteko halabeharrezko etenaldiaren ostean, gaur hasi eta igandea bitartean festa giroa nagusituko da Azpeitian, eta dagoeneko gogoia nabarria da herrian; ikusi besterik ez dago merkatariek nola apaindu dituzten erakuslehoak eta herritarrek beren etxeetako balkoiak nahiz leihoak. Helduen zein umeen danborradetan parte hartuko duten herritarrek egunak daramatzate jo eta su entsezetan eta udalak ere prest du ia guztia. Zalantza bakarra dago airean: noiz egingo den umeen danborrada. Eguraldi iragarpen txarra tarteko, gaur eguerdian erabakiko dute San Sebastian egunak egin ala igandera atzeratu.

San Sebastian bezperako helduen danborradan 30 taldek eta 1.500etik gora herritarrek parte hartuko dute; umeenan, berriz, hamar taldek eta 500 bat lagunek. «Pozgarria da berriro ere hain geureak eta horren parte hartzaileak diren San Sebastian festak ospatzeko moduan egotea. Azpeitia askok eta askok gogoz bizi ditugu festa hauek, danborra joz edo kalean taldeak ikusiz, txaloak joz edo animatuz», adierazi zuen Nagore Alkorta alkateak astelehenean, festa aurkezteko egin zuten ekitaldian.

Berrikuntzak izango direla alpatu zuen alkateak, nahiz eta bere ustean berrikuntzarik onena berriro kaleak hartzea izango den. «Jendetza izango da beste behin danborrean bueltan kalejira, eta ohi bezala, aniztasuna eta parte hartzea izango dira nagusi. Heldu naiz gero, emakume zein gizon... denentzako moduko festa izango dira aurtengoak ere».

Helduen danborradako berrikuntza nagusia kanta berria izango da: Pantxoa eta Peioren *Batasuna*. San Sebastian bezperako danborradan ziren San Sebastian eguneko banderaren jaitserakoan joko dute; hain zuzen



Joan den astean hasi ziren helduak danborradarako entsezetan, eta aste honetan ere bi saio egin dituzte. JULIENE FRANTZESINA

ere, plazan entzuten den azken kanta izango da.

Bi omendu

Omenduei dagokionez, bi izango dira aurtengoa. Helduen danborradako Ardozaleak taldeak 50 urte beteko ditu San Sebastian bezperako danborradan parte hartzen, eta udalaren eta danborradaren omenaldia jasoko du taldeak gauerdian. Haurren danborradan, berriz, Juan Antxieta musika eskola omenduko du udalak, 40 urte bete zuten dituelako aurten. «Polita iruditzen zaigu musika protagonista duen festa honetan berriak omentzea», zehaztu zuen alkateak. Umeen danborrada plazara iristen den unean egingo dute hori, udal txean.

Haurren danborradako karroza Aitor Expositok egin du aurten, Euskal Antzerki Topaketan 40. urterreuna gai hartuta. Eta, nola ez, sokamuturrik ere ez da faltako aurtengo sansebastianetan; bi egunez ibiliko da zezena kalean: bihar eta igandean.

Egitaraua

GAUR, OSTEGUNA

22:00. Helduen danborrada. Olazko Andre Mariaren plazatik irtenda.

00:00. Talde guztiak plazan elkartuko dira, eta Ardozaleak taldeak 50. urtemugako oroigarria jasoko du udal txean.

BIHAR, OSTIRALA

09:00. Izarraitz txistulari taldeko kideen eta Juan Antxieta musika eskolako ikasleen goiz ere, kalez kale.

09:30. Ardozaleak eta Gure Ametsa taldeek kalejira egingo dute plazatik hasita. Udal Musika Bandako musikariek eta Juan Antxieta musika eskolako txiliditerek lagunduta.

10:15. Udal ordezkariak udal txean aurretik Soreasuko Sebastian Donearen parrokira joango dira.

10:30. Prozesioa, Alde Zaharrean barrena.

10:45. Meza nagusia, Soreasuko Sebastian Donearen parrokian. Parrokia eta Julian Barrenetxea abesbatzako eta Azketa ahots taldeko kideek parte hartuko dute elizkizunean. Ignacio Arakistain arduratuko da elizkizunean organoajotzeaz.

12:00. Sokamuturra. Erdikaleetik aterata, plazan. Lopene ganadutegiko zenezak izango dira.

12:30. Arana kaleetik eta Artzubi hiribidetik aterata, umeen danborrada. Kalez kale ibiliko dira hamar taldeak, eta plazan bukatuko dute ekitaldia. Gaiñera, taldeak plazan direla, Juan Antxieta musika eskolako omenaldia jasoko du. Halaber, danbor taldeen batera aterako da karroza. Aurtengoa Aitor Expositok egin du, Azpeitiko 40. Euskal Antzerki Topaketak gai hartuta.

16:30. Sokamuturra. Erdikalean hasita, 2000etara bitartean ohiko ibilbidea egingo du sokamuturra. Lopene ganadutegiko zenezak izango dira.

23:15. Bandera jaitserako danborradaren hasiera. Bustinzuriko Errebaletik abiatuko dira jaitserian parte hartuko duten taldeak (Gastadoreak, Zulozabal, Loiolatxo, Itxasi, Harkaitza, Etxera, Basazabal eta Iraurgi SB) eta Alde Zaharrean kalejira egingo plazan bukatuko dute ibilbidea.

00:00. Banderaren jaitseria, plazan. Udal Musika Bandak joko ditu danborradako piezak, zuzenean.

URTARRILAK 22, IGANDEA

12:00. Zezen Beltzek antolatuta, sokako zezen txikia Erdikaletik plazara. Ondoren, Bergarako Zezenak ganadutegiko zezen txikiak eta poniak plazan.

16:30. Zinuema: Gubi filma. Uemak eta Tinkok euskarazko zinema eskaintza bermatzeko sortutako egitasmoaren barruan.

16:30. Erdikalean hasita, sokamuturra: ohiko ibilbidea egingo du 2000etara bitartean. Bergarako Zezenak ganadutegiko zenezak izango dira.

UROLA KOSTAKO HITZA
Osteguna, 2023ko azarriaren 19a

Erreleboa hartu duten eta zuzendari lanetan ariko diren bost lagun dira Uro Arrieta, Iraide Leunda, Arantxa Orbea, Ioritz Otaegi eta Iraitz Seguro. Denak gaur gaueko danborrada iritsi zain daude, estreinako aldirako.

Zuzendari berriak, urduri baina gogotsu

~JULENE FRANTZESENA

Azpeitia

Ohi baina zuzendari berri gehiago izango dira aurtengo San Sebastian bezperako danborradan. Urduri bai, baina gogotsu ere badaude.



URKO ARRIETA

Olib-Soro

«**Bi urtez zain egon ostean, iritsi da unea, eta gogoz nago**»

«Pandemia aurretik galdetu zidan Galdosek [Jon Galdos izan da zuzendaria orain arte] zuzendari izango al nintzen. Aukera gustatu egin zitzaidan, eta bi urtez zain egon ostean, iritsi da unea, eta gogoz nago. Lehen entseguia uste baino hobeto joan zen; taldeko kideek uste baino hobeto jo zuten danborra, eta neu ere uste baino hobeto moldatu nintzen. Lehen entseguia pasatuta, pisu pixka bat kendu nuen gainetik; baina danborradan urduri izango naiz.»



IRAIDE LEUNDA

Arantzaz

«**Arantxa taldean jende gazteago dago, baina talde zintzoa dela esango nuke**»

«Alde batetik, urduri nago, lehen aldiz aterako naizelako zuzendari; baina, bestetik, nahiko lasai nago, askotan atera naizelako danborradan eta piezak ezagu-

zaren ditudalako. Lehen entseguia oso ondo joan zen, nahiz eta *San Sebastian martxa* pixka bat korripilatu zitzaigun. Danborradarako gogoz nago. Arantxa taldean jende gazte dezente dago –zahar batzuk ere bai–, baina talde zintzoa dela esango nuke».



ARANTXA ORBEA

Julian Barrenetxea abesbatza

«**Gehien 'San Sebastian martxa' gustatzen zait, nahiz eta zailena den**»

«Betidanik izan dut zuzendari aritzeko ilusioa, eta zera pentsatu nuen: 'Aukera honi heltzen diot, edo nireak joan dira'. Eta animatu egin nintzen. Urduritasun dezente izan nuen lehen entseguan, batez ere hasieran, baina gero askatu egin nintzen, eta ondo joan zen. San Sebastian bezperarako gogoz nago, beti bezala. Kantetan gehien *San Sebastian martxa* gustatzen zait, nahiz eta badakidan zailtasun handienak ere berak dituela; izan ere, oso azkar joaten gara. Badu azpeitarrontzat puntu garrantzitsuak bat abesti horreko.



IORITZ OTAEGI

Izarritze

«**Artalde oso txukuna daukat, zuzendaria baina txukunagoa...**»

«Pandemia aurreko urtean atera zen lehen aldiz Izarritze. Orduko zuzendaria aurten faltako

zela eta, animatuko al nintzen galdetu zidaten iaz taldekekidek. 'Zergatik ez?', pentsatu nuen neure artean, eta halaxe, entsegu askorik gabe eta askorik jakin gabe, saltoa egin dut; hemendik aurrera, ahalik eta ondoen egiteko! Danborradaren unea iristeko gogoz nago, lehen entseguia eginda, giroa berotzen ere sumatzen dugu, eta... Urduritasun puntua badaukat, baina eskerak taldekekideek oso ondo jotzen duten. Horrekin gustura nago, artalde oso txukuna daukat eta; zuzendaria baino txukunagoa... [barrez].»



IRAITZ SEGUROLA

Ollagorria

«**Etxean aritu naiz entsetuzten, ordenagailu aurrean, makila eta guzti**»

«Urte askotan Alberto [Jimenez] atera izan da zuzendari Ollagorria taldean, eta hark beti esaten zuten danborra ere gustura joko zukeela. Esan nion 40 urte egin nituenean aterako nintzela zuzendari, berak danborra jo zezan. Iaz, baina, pandemia tarteko ezin izan genuen irten, eta aurten, 41 urterekin, baina berdin-berdin, gogo handiz aterako naiz; hiltza eman nion, eta gustura aterako naiz. Etxean aritu naiz entsetuzten, ordenagailu aurrean; lehenik makila txikiarekin, eta gero handiarekin. Ondo moldatu naiz, egia esan. Lehen entseguan urduri egon nintzen hasieran, baina gero askatu egin nintzen. Akats batzuk ere egin nituen, baina normala izango da, ez? [barrez]. Danborradarako gogo handiz nago, beti bezala; aurten, gainera, aliziente berri bat daukat, zuzendari aterako naizelako.»



Urtetako mus txapelketa. ARITZ MUTIOZABAL

Bueltan dira Urtetako San Sebastian jaiak

Ostiralean hasi eta bi asteburuz luzatuko dira Zarauzko Urteta auzoko sansebastianak. Neska-Mutil Ardo elkartekoek egitarau zabalera prestatu dute.

~ARITZ MUTIOZABAL

Zarauz

Bihar abiatuko dituzte auzoko jaiak Zarauzko Urtetan, Sebastian Donearen egunarekin, eta bi asteburuz izango dute zer ospatua bertako bizilagunek. Gai-

nera, auzora bertaratzeko autobus zerbitzua izango da Zarauz-tik bihar, igotzeko 10:00etan eta jaisteko 13:30ean; eta datorren igandean, igotzeko 10:00etan eta 12:00etan; eta jaisteko, 14:30ean.

Egitaraua

BIHAR, OSTIRALA

10:30. Meza nagusia.

11:00. Hamaiketako, auzo elkartean.

Goiz osoan, Amets Etxaide eta Iriti Orbegozo izango dira giroa alaitzen.

21:00. Bertso afaria auzo elkartean, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsoariarekin, eta Aratz eta Mariak jotako doinukin alaituta.

Jarrailan, erromeria goizeko ordu txikiak arte.

URTARRILAK 21,

LARUNBATA

16:00. Urtetako XXIII. Mus Txapelketa Azkarra.

URTARRILAK 22, IGANDEA

10:30. Meza nagusia.

11:00. Hamaiketako, auzo elkartean.

Ondoren, herri kirol festa Izeta harri jasotzaile eskolako neska-mutilen eskutik.

Goiza amaitzeko, sokatarri desafio auzoko Neska-Mutil Ardo-

koen eta ezkonduen artean.

Goiz osoan, Aratz eta Maria trikitilariak ariko dira giroa alaitzen.

18:30. Erromeria Elustondo anai-arrebekin.

URTARRILAK 28,

LARUNBATA

22:30. Kontzertuak auzo elkartean: GZR taldea lehenbiziki, eta Fan&Go ondoren.

URTARRILAK 29, IGANDEA

Egurdian, Neska-Mutil Ardo kideek omenaldia eta bazkaria eskainiko dizkiete auzoko adinekoei.



Puntuka
J.M. Olaizola 'Txiliku'

Jakin-mina

Euskaraz esanahi zabalekoa da *min* hitza: oinazea adierazten du, alde batetik, gorputzean jartzen zaigun sentipen nekagarri hori, eta, beste batetik, adjektibo gisa ere erabiltzen dugu jakiek ahoan sortzen duten halako sentsazio bero edo erredurazkoa adierazteko. Egia da azken aldian jendeak *pikante* deitzeo ohitura txarra hartu duela, baina minak dira (eta ez pikanteak) era horretako jakiak, pipermina adibide. Kontuak bihurriagoak egiten dira «min» hori hitzaren amaierakoa edota beste hitz bati lotuta datorrenean: samina da atsekabea edo mina sortzen duena, sumina haserre errazekoa edo haserre bizikoa dena, karmina garratza dena. Nostalgia edo urrutitasunak sortutako goibeltasunari lotuak dira, bestalde, oroimina eta herrimina; eta indar bereziko loturak adierazten dituzte adiskide min edo lagun min bikoteek. Azkenik, zerbait jakiteko gogo biziazi itsatsita dator jakin-min hitza.



«Argazki horrek ditu kulpa guztiak, irudi horrek ekarri dit [...] oroitzapen zaharra...».

Jakin-minak asko zor dio memoriari, beharrezkoa du. Izan ere, nola elikatzen dugu gure jakin-mina? Ikasitako gauza berriak memorian gordez, eta kontu are berriagoak biltzeko irrika piztuz. Horixe gure jakin-minaren oinarria eta funtzionatzeko era. Etsenplu baten bidez argitu nahiko nuke jakin-minaren kontu hori, garai bateko sermoilariet egin ohi zuten moduan.

Joan zen mendearen hirurogeiko urte horietan gaur ez bezalako izaerakoa zen Zarauzko Salbide auzoa: nekazari kutsu handikoa, periferikoa, herrigunetik apartekoa. Trenbide azpiko zubitik albo batera, Lanpardoren magalean, hedatzen zen bailara txikia edozein landa-leku idiliko adinakoa zen. Inguru hartara agertzen ziren lapiko-konpontzaileak, azienden ile-

moztaileak, ijitano alderraiak eta mundu zahar bati buruz paperetan irakurritako kontuetan bakarrik ohikoak diren beste zenbait pertsonaia. Haiek denak desagertu dira gaur egun, eta gure memorian bakarrik dute izaera eta bizitza.

Pertsonaia horietatik misterio handiena eragiten zidatenak familia bitxi batekoak ziren: bi gizon gazte eta haien ama zaharkitua. Mutilak argalak eta luxeak ziren, ile argikoak, eta txapel txiki bana zeramaten ia beti soinean, alde batera okertuta. Oinez etortzen ziren trenbidetik eguerdi partean, eta amak prestatutako bazkaria jaten zuten aire zabalean. Trenbide azpiko zubiaren inguruan prestatzen zuen hark otordua, hiru hurritz-makilarekin-edo osatutako halako tripode batetik zintzilika zegoen pertza kokxor

batean, eta ingurutik bildutako egurrekin sua eginez, nik uste. Ez zen emakume hitzuna. Behin baino gehiagotan topo egitea egokitu bazitzaigun ere, nik ez dut gogoratzen hark esandako hitzik. Agian, isil egotea hobe zela pentsatuko zuen nire izu- eta lotsa-aurpegia ikusita. Ez dakit. Misterioz inguratutako pertsona izan zen beti niretzat.

Aditu izan dut familia hark bazuela etxebizitza, hor Iñurritza alde horretan edo, baina sarritan ikusten genituen beste hor nonbait lan egiten zuten bi semeak trenbidean bide eginez amarekin penditz-ondo batean bazkaltzera etortzen.

Aste honetan bertan zientziaren zabal-kunderako (omen den) aldizkari batean ikusi berri dut nire memoriak gordean zuten hiru makilez osatutako tripode hura (antzekoa, esan beharko nuke), eta handik esekita pertza jakiak prestatzeko. Artikuluan Euskal Herriko agotak aipatzen ziren, eta horrek ireki dizkit begiak, eta jakin-mina piztu. Baina ez edonola, ezagutzeko eta jakiteko irrika bizia sortu dit, irrika mina.

Agote familia ote zen nik ezagututako hura? Aditu izan dut euskaraz bazekitela. Ez dakit hala izango zen. Aditu izan dut nafarrak zirela. Ez dakit hori ere hala izango zen.

Hor goian ageri den argazki horrek ditu kulpa guztiak, irudi horrek ekarri dit memoriaren bazter zokoetik oroitzapen zaharra, eta jakin nahi dut. Izango ote dut jakin-min hori asetzeko aukerarik? Ba ote dago familia horren oroitzapena gordetzen duen memoriarik? Jakin nahiko nuke. Horrelakoxea da jakin-mina!

Floreaga auzoko proiektuaren bigarren faseko obrak, esleitura

—**ANE OLAIZOLA** Azkoitia Azkoitiko Udalak esleitu ditu Floreaga auzoko irisgarritasun proiektuaren bigarren faseko lanak. Bi enpresa aurkeztu dira lehiaketara: Egurki Eraikuntzak S.L. eta Altuna y Uria S.L., eta udalak lehenengoari esleitu dizkio obrak. Enpresak 994.235 euroko aurrekontua du proiektua gauzatzeko (BEZ barne), eta aurreikuspenen arabera, bost hilabetetan amaituko ditu egin beharreko lanak.

Bigarren faseko lanetan igogailu bat jartzea, hari bi pasabide lotzea eta gunea urbanizatze lanak egitea aurreikusten du udalak. Hain zuzen ere, Aizkibel eta Zuazola kaleen arteko bidegurutzean kokatuko lukete igogailua, eta handik bi pasabide

gingo dituzte: bata, Zuazola plazara, eta bestea, Floreaga Berri plazara. Igogailuaren lehen solairuak Zuazola plazara eramango luke, eta bigarrenak Floreaga Berri plazara. Modu horretara, lehenengo faseak eta bigarrenak auzoko gune ezberdinak konektatuko dituen ibilbide bakar bat osatuko dute, Aizkibel kalean 16,5 metroko desnibela libratuz.

Joan zen urrian, udalak bigarren aldiz ateratu zituen lizitazioa Floreagako bigarren faseko lanak. Erakundeak maiatzean ateratu zituen lizitazioa lanak aurreneko aldiz, baina orduan lehiaketara enpresarik aurkeztu ez zenez, hutsik gelditu zen prozesua. Erakundearen arabera «materialen prezioen igoerak» era-

gin zuen hori. Ondorioz, aurrekontua bera ere igo egin zen bigarren deialdian -231.110 euro gehiago-.

Javier Zubizarreta Azkoitiko alkatearen hitzetan, lizitazioa bigarrenegoz ateratu behar izateak sei hilabeteko atzerapena eragin du. «Saiatuko gara obren hasiera bizkortzen, eta edonola ere, aste gutxiren barruan, obrak martxan izango dira. Oraingo lizitazioa bi eskaintza aurkeztu dituzte behintzat. Prezioen gorakadak aurrekontuak eguneratuz behartu gaitu, eta proiektuaren arabera, igoerak esanguratsua dira. Floreagaren kasuan, gure konpromisoa sendoa da. Aurrera jarraituko dugu geratzen diren faseak gauzatu arte».

Nerabezaroaz eta nerabeez hitz egiteko saioak antolatu dituzte

—**JULENE FRANTZESENA**

Azpeitia Nerabeen gurasoei zuzendutako saioak prestatu dituzte Azpeitiko ikastetxeek eta udaleko hainbat zerbitzuek datozen asteetarako; hain zuzen ere, urtarrilaren 25ean eta otsailaren 2an izango dira saioak. Nerabezaroaren ezaugarriak kontuan izanik, nerabeen heziketan lanean ari diren profesionalen eta gurasoen elkargune izateko jarri dituzte hitzorduak, batez ere, nerabeen inguruko gogoetak elkarbanatzeko.

Bi saioak adinaren arabera banatuta egingo dituzte. Zehazki, DBH 1eko, DBH 2ko eta DBH 3ko ikasleen gurasoentzat izango da hilaren 25ean, asteazkenez,

gingo duten saioa; aldiz, DBH 4ko eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetako ikasleen gurasoei zuzendutako otsailaren 2an, ostegunez, gauzatuko dutena. Bi saioak 18:00etatik 19:00etara izango dira, Azoka Plazako aretoan.

Saioen sustatzaileek azaldu dutenez, bilerara joateko asmoa duten herritarrek formulario bat bete beharko dute, antolaketa lanak errazteko helburuarekin. *Urolakosta.hitza.eus* atarian edo Azpeitiko Udalaren webgunean eskura daiteke formularioa. Hala eta guztiz ere, parte hartze irekia izango denez, izena eman gabe ere joan ahal izango dute gurasoek nerabeen inguruko saioetara.

Azpeitiko Emakumeen Txokoaren programazio berria prest da

Udaberriko Jabetze Eskolen barruan, sei ikastaro eskainiko dituzte hurrengo hilabeteetan, eta eman daiteke izena • Askotariko saioak ere izango dira ekainera artean

-MAIALENETXANIZ

Prest dago Azpeitiko Emakumeen Txokoko udaberriko programazioa, eta askotariko edukiz beteta dator. Urtero bezala, Jabetze Eskolak nahiz parte hartzeko, sentsibilizazioko eta integrazioko ekintzak antolatuta dituzte Azpeitiko Emakumeen Mahaia eta udalak ekainera bitartean. Ekintzetako asko irekiak izango dira, baina beste hainbatetan parte hartzeko izena ematea ezinbestekoa izango da, eta horretarako epea urtarrilaren 23an irekiko da.

Udaberriko Jabetze Eskolen barruan, sei ikastaro eskainiko dituzte: *Amatasunak eta sexualitateak*, batukada feminista, zoru pelbikoa lantzeko ikastaroa, telazko konpresen inguruko, sabel dantza tailerra eta *Boterea, ahizpatasuna eta perreoa* ikastaroa.

Amatasunak eta sexualitateak PLAX! zerbitzutik bideratutako saioa izango da, eta helburua da amatasunaz hausnartzeko, bizipenak partekatze eta elkar zaintzeko espazioa sortzea. Urtarrilaren 28an, larunbatez, eskainiko dute saioa, eta Edurne Mendizabal arituko da gidari. Tailerra hiru ordukoa izango da -10:00etatik 13:00etara-, eta Emakumeen Txokoan eskainiko dute. Bertan parte hartzeko izen ematea hilaren 25ean itxiko da. Saioa doakoa izango da.

Batukada feminista, berriz,



Batukada feminista. EKIADOR ETXEA

Ainara Sarasketak eta Arantza Albizuk eskainiko dute, hilean bi astelehenetan, 18:00etatik 20:00etara. Hilean egun batean Emakumeen Txokoan eskainiko dute saioa, eta beste egunean Azkoitiko Xabier Munibe ikastolan. Landunek bederatzi euro ordaindu beharko dute ikastaroa, eta langabeek, ikasleek edo pentsiodunek, sei euro.

Zoru pelbikoa lantzeko ikastaroa, bestalde, Saioa Baenak eskainiko du. Hamar saioko taile-

rra izango da, martxoaren 3tik maiatzaren 26ra artekoa. Landunek 22,5 euro ordaindu beharko

Matazak aurkeztuko dute, emakumeen oroimen historikoa biltzen duen proiektua

dute izen ematea, eta langabeek, ikasleek eta pentsiodunek, 15 euro.

Telazko... Zeer? izango da es-

kainiko duten beste tailerretako bat. Ikastaroan, telazko konpresen erabileraren inguruko datuak argitu eta norbera bere nezeserra osatzeko gai dela erakutsi nahi dute. Era berean, hilekoaz naturaltasunez hitz egiteko lekua izan nahi du tailerrak. Michaela Foltovak gidatuko ditu saioak, eta otsailaren 10ean, 17an eta 24an izango dira, 17:00etatik 19:00etara. Landunek bederatzi euro ordaindu beharko dute, eta langabeek, sei euro.

Sabel dantzari dagokionez, Jaione Albenizek eskainiko du tailerra, elebitan, otsailaren 7tik apirilaren 25era; astearteetan, 18:00etatik 19:30era artean. Guz-tira, hamar saio izango dira. Langileek 22,5 euro ordaindu beharko dute, eta langabeek, 15 euro.

Boterea, ahizpatasuna eta perreoa ikastaroan, bestalde, booty dance dantzen potentziala ezagutuko dute parte hartzaileek, «ahaldunduago sentitzeko». Horretarako, «gune seguru bat» sortu nahi dute, eta sexualki dantza esplizituen historia, kultura eta mugimenduak ezagutuko dituzte, hala nola twerk, dancehall queen eta perreo-a, «begirada feminista eta antiarrazista batetik». Ines Lasagabaster izango da bideratzailea, eta maiatzaren 16an, 18an, 23an eta 25ean izango dira saioak 17:30etik 19:30era. Langileek 12 euro ordaindu beharko dute, eta langabeek, ikasleek eta pentsiodunek, 8 euro.

Askotariko ekintza sorta

Jabetze Eskolez gain, kultur jarduerak, formakuntza saioak nahiz bestelako ekintzak ere antolatu dituzte Emakumeen Txokoan. Otsailaren 8an eta 15ean, esaterako, Leire Ibarguren azpeitiarrak idatzitako *Petare. Miren Egigurenen puskak* liburua aurkeztuko du, 18:30ean, Emakumeen Txokoan.

Martxoaren 22an, berriz, *Nuestra Libertad* dokumentala emango dute, gaztelaniaz, 18:30ean, Soreasu antzokian. Maiatzaren 17an, bestalde, Zinegoak film laburren proiektioa eta solasaldia izango dira, 19:00etan, Soreasun.

Ekainean, bestalde -aurrera- go jakinaraziko dute data-, Azpeitiko emakumeen oroimen historikoa jasotzen duen Matazak proiektua aurkeztuko dute.

Eskelak

Hilberriak
Urteurrenak
Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZAn jarrita,
Goierriko Hitzan eta Atarian DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu / urolakosta@hitza.eus / Tel.: 943-89 00 17

Eskelak orain TXIKIA (82mm x 64mm): 120 € / *Harpidedunentzat: 60 €
merkeago HANDIA (124mm x 64mm): 178 € / *Harpidedunentzat: 86 €
ESKERTZA (38mm x 64mm): 60 € / *Harpidedunentzat: 30 €

*Harpidedunak HITZako bulegotik pasa
Bez barne

Argitaratzailea: Urolako Komunikazio Taldea
 Koop. Elk.
Lege Gordailua: SS-0188-04. ISSN. 1697-8587
Zuzendaria: Nerea Uranga.
Helbidea: Azpeitia, Soreasu 1, 20730, 943-81 38 41.
Zarautz: Araba kalea 27, 20800, 943-89 00 17.
Posta elektronikoa: urolakosta@uktt.eus.
Webgunea: urolakosta.hitza.eus.
Zuzendariordea: Aritz Mutiozabal.
Publizitate: Urola Kosta: 673 69 90 95.
Zarautz: 607 61 52 39. zarautz@uktt.eus.
Orio-Aia: 607 49 87 23. orio@uktt.eus.
Zumaia: 685 71 20 90. zumaia@uktt.eus.
Getaria: 607 49 87 23. getaria@uktt.eus.
Azpeitia: 607 49 87 25. azpeitia@uktt.eus.
Azkoitia: 607 49 87 27. azkoitia@uktt.eus.
Zestoa-Aizarnazabal-Errezil-Beizama: 607 49 87 27.
 zestoa@uktt.eus.



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Getaria, Errezil, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzea, harpidetza egiteko):
943-30 30 35



Temperatura
 V 11°
 A 4°

Mareak

Itsasgora	1:56-14:28
Metroak	3:58-3:61
Itsasbehera	8:03-20:32
Metroak	1:06-0:99

zarauzkohitza.eus / urolakosta.hitza.eus

Agenda

Gaur, osteguna

Literatura

Zumaia. Ameriketara egindako bidaia jasotzen duen *Amapatxa, amets bat bide bat* liburua aurkeztuko du Ion Brakamontek. 19:00etan, Alondegian.

Zarautz. *Gurasoak ere ipuin kontalaria* ipuin kontaketa saioa Miriam Mendozaren eskutik. 3 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzenduta. 17:30ean, Sanz Enean.

Zarautz. *Un dia en la vida de una mujer sonriente* literatura soralaldia, gaztelaniaz. 18:30ean, Sanz Enean.

Zarautz. *Xillardegiren kronika* liburuaren aurkezpena Koldo Izagirre eta Juan Luis Zabalauren eskutik. 19:00etan, Garoa liburu-denda.

Bilera

Zumaia. San Telmo jaietako egitaraua prestatzeko bilera irekia Gaztetxean, 19:00etan.

Bihar, ostirala

Antzerkia

Zumaia. Hika teatroa konpainiaren *Toto* antzezlan. Sarre-
 rak aurrez salgai daude Turismo Bulegoan, baita *sarrerakzumaia.eus* helbidean ere. 20:00etan, Aita Mari aretoan.

Etzi, larunbata

Antzerkia

Azkoitia. Txalo Produzekioak konpainiak *Kottauak* komedia eskainiko du Mikel Laskurain eta Ane Gabarain protagonista dituela. Sarre-
 rak aurrez salgai daude *entradium.com* webgunean. 19:00etan, Baztartzo antzokian.

Musika

Azpeitia. Willis Drummond, Ro eta Trini Fox taldeen kontzertua. Sarre-
 rak aurrez salgai daude *entradium.com* webgunean. 22:00etik aurrera, Sanagustin kultur-
 gunean.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Sahararentzako janaria biltzen

Saharako errefuxiatuen alde janaria bilduko du Darahlik Zumaian • Astean zehar ikastetxeetan egin dute bilketa, eta etzi supermerkatu batzuetan egingo dute

–JUAN LUIS ROMATET

Zumaia
 Zumaiaiko Darahli elkarteak ki-deek Saharako errefuxiatuen alde lanean jarraitzen dute. Iazko abenduan, adibidez, Aljeriako desertuan aurkitzen diren errefuxiatuen kanpalekuan izan ziren zumaiarrak, Zumaia-
 tik abiatutako lankidetzaren proiektu batzuetako fruituak eramaten: ur biltegiak eraman zituzten, baita dirua ere, beharrean dauden Saharako familientzako. Apirilean ikasleekin egingo duten bidaia xehetasunak loz-
 tzen ere aritu ziren elkarteak ki-deak.

Aste honetan, berriz, Euskal Karabanarekin bat eginda, Zumaia-
 ko Darahli elkarteak janaria bilduko du herrian. Bildutako janaria eta bestelako produktuak karabanaren bitartez bidaliko dituzte Saharako errefuxiatuen kanpalekuetara. Ekintza horren helburua Tindufeko (Aljeria)

kanpaleku horietan pairatzen duten elikagai falta nolabait aietzea da.

Janari bilketa bi fasetan egin dute: bihar arte Zumaiaiko ikastetxeetan jasoko dituzte produktuak; etzi, larunbatez, berriz, Eroski eta BM supermerkatue-

Materia eramateko dauden zailtasunak direla medio, diruz ere lagundu daitezke

tan. Darahlik azaldu duenez, bilketa goizez bakarrik egingo dute egun horretan.

Deialdian honako produktuak jasoko dituzte: atun eta sardina latak, azukrea, lekaleak, pasta, dilistak, arroza, konpresak eta irarungi gabeko sendagaiak.

Zailtasunak areagotu


Saharako errefuxiatuen alde egingo duten eskualdeko elkarteak

jakitun dira gero eta zailagoa bihurtu dela kanpalekuetara laguntza bidaltzea. Horregatik, kanpaina hauetan partaidea izan ohi diren Zestoako Wadna eta Zarauzko Saharautz elkarteek ez dute hil honetan bilketarik egingo; Zumaiaiko Darahli da kanpaina abian jarri duen elkarte bakarra Urola Kosta eskualdean.

Horretaz gain, elikagai horiek kanpalekuetara eramateak kostu ekonomikoa handia duela eta, aurretik dirua ere jasoko dute.

Hala, lagundu nahi duten herri-
 tarrek janaria eman dezakete, edo bestela, dirua. Bildutako diru horrekin elikagaiak Tindufen bertan erosi ahal izango dituzte.

Urteak daramatza Darahlik Euskal Karabanarekin parte hartzen eta Saharako errefuxiatuen aldeko janari bilketa horiek egingo dituzte. Iaz, adibidez, 2.400 kilo bildu zituen ikastetxeen bidez eta herri mailan egindako kanpainan.



Darahliko boluntarioak, abenduan kanpalekuan. DARAHLI

URTARRILAK 19

SAN SEBASTIAN BEZPERA

SAIO BEREZIA

Erreportajeak 21:30etik 22:15era
 Zuzeneko gonbidatuekin, 22:15etik 00:15era
 uztarrria.eus eta Erlu telebistan

erlu
 ERLO UZTARRIA

SANSEBASTIANAK
2023
 azpeitia

uztarrria.eus